

Josemari Velez de Mendizabal

Gasteiz? Takolotik aurrera...

Errepasatzen ditut duela berrogei urteko argazkiak eta pelikulak eta nekez asma dezaket haietan islatutakoak nire herriko bazterrak direnik. Aldatu da egitura, desagertu zaizkit lehengo zehazkizunak, eta hiri-nortasunaren euskarriak ere bestelakotu egin dira, arras. Antzerako sentsazioa bizi izango dute, ziur, oraingo gaztetxoek berrogei bat urte barru, izan ere gizarteek, iraunkorrak izango badira, euren ibilbidean mugarriak definitzen joan behar dute, inobilismoan aingura ez daitezen.

Baina abantaila batekin jokatzeko dut nik etorkizuneko begiraleekin alderatuta: ni atzoko etorkizunaren hiritarra naiz. Eta horrek ematen dit halako agente ahalmen bat, burutu denaren gaineko kritika izateko. Badakit ez duela gauza handirako balio, baina behintzat nire behatoki propiotik ikusitakoaz hausnarketa txikia egiteak kontzientziarekiko bakea dakarkit. Eta, hein batean, aldeko eta txarreko ondorioen erantzule naizela gogorarazten dit ariketak.

Duela berrogei urte bagenuen Arrasaten halako hiri-leiend bat, zeinak zioen udaltzain batek (*kalezaiñ*, protagonistaren hitzetan) turista batzuei Gasteizerako bideaz galdetu ziotenean “Takolotik aurrera” erantzun ziela. Udaltzain hark bere sentimendu osoa jarri zuen bere argibidean, bisitari arrotz haiek kaleetan barrena gal ez zitezen, horretarako herriaren hego-mendebaldeko baserriaren izena eskainiz. Orain dela egun batzuk, aldiz, nire lagun batek galdetu die herriko bi udaltzaini non zegoen Mankomunitateko eraikina... eta ez zekitela ihardetsi diote uniformatuek, lasai asko. Eskerrak handik hurbil hiritar arrunt bat begira zegoela eta hark eman dizkio zehazkizunak nire adiskideari.

Hiriak aldatzen ari dira, eta baita hiritarrok ere. Edo ordena alderantzizkoa al da? Pentsamoldeak ordezkatzeko gizakia-aren abilezia oinarritzen da hirien aldakuntza jarraikia. Soka luze eta korapiloz betea bilakatzen da hirien garapena, eta ez luke hiritarra-hiria binomioak baliorik izango bien arteko indar bektoreek ez



DANI BLANCO

baliote elkarri elikatuko. Hiri abegikor batek hiritarrak moldeatzen ditu, gizon-emakume abegitsuago eta irekiagoak sortuz, hiri zakar eta halamoduzko batek emanikoak baino. Eta bestetara.

Arrasatear *kalezaiñ*aren jarrerak giza harremanak ahalbidetzen zituen, espazio publikoa hiritarren mugikortasunerako egokia zen-eta, eta informazioa modu pertsonalean ere korritzen zen, norabide askotatik. Inter-komunikazioari aukera eskaintzen zitzaion, seguru asko gaur baino indar gehiagorekin. Egungo hirietan, aitzitik, zientzia eta teknologia gartuen islapen masiboa begi bistan dugularik, hiritarrok gehiago hurbiltzen gara, beste bi udaltzainen “ez dakit” hotz eta arduragabe horren eskemetara.

Hiriak ditugu zibilizazioaren arrastoak hoberen gordetzen dituzten errealitateak. Bertan ematen dira tentsiorik handienak onerako eta txarrerako, bertan sortzen dira kontraesanak beren erakuspenik gordinean. Hirietan aurki ditzakegu espe-

Sortu dugun zibilizazio zalantzarri honetan etikaren zutabeak ez ote garen birrintzen ari galdetzen diot maiz nire buruari. Eta barre –edo mina– sorrarazten dit garapen iraunkorrari buruzko diskurtsoak, gai ez garenean hiritarren arteko harreman erraz, sendo eta aberatsa pizteko

rantzarako arrazoirik funtsezkoenak, baina baita iragarpenik ilunenetakoak ere. Bizitzaren beraren estilo berdintsuan. Ondorioz, denon artean sortu dugun zibilizazio zalantzarri honetan –pertsonak interdependentziaren ardatzetatik gero eta urrunago gaudelarik– etikaren zutabeak ez ote garen birrintzen ari galdetzen diot maiz nire buruari. Eta barre –edo mina– sorrarazten dit garapen iraunkorrari buruzko diskurtsoak, gai ez garenean hiritarren arteko harreman erraz, sendo eta aberatsa pizteko. ■